Aurizko Udaletxean, 2019ko urriaren 7an, 19:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Juan Miguel Juandeaburre Ainciburu, Miren Oyarbide Lapazaran, Ana Azanza Burusco eta Mikel Gaztelu Alonso, bilkura buru alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gaztelu zinegotziak bilkura grabatuko duela dio.

1.- 2019ko UZTAILAREN 29ko eta ABUZTUAREN 26ko BILKUREN AKTEN ONESPENA

Udalbatzak erabaki abstentzio batez (Gaztelu zinegotzia) uztailaren 29ko bilkuraren akta onartzea eta aho batez abuztuaren 26ko bilkuraren akta onartzea.

2.- 2019ko UZTAILAREN 26tik URRIAREN 3a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA

Alkateak, Irigaray jk., 2019ko uztailaren 26tik urriaren 3a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du; horiek guztiak bilkurako espedientean daude eta udalkideak jakinaren gainean gelditu dira.

Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta 124. Ebazpenari buruz galdetu du, lanak geldiarazteari dagokiona, zer den galdetu du, hura irakurtzean delitu batez ari dela ematen baitu eta bertan ikusita dagoen etxetxea aldatzea besterik ez da. Jakinarazi da 5 poligonoko 231 lurzatian etxetxea jartzeko zola jarri zela eta horretarako baimena behar dela, egin ben bakarra izan dela jabeari egoera normaltzeko prozedura jarraitzea. Gaia argitu eta arautu ondoren, eskatutakoa egin ahal bada, Udalak obra egiteko baimena emanen du eta txostenari bukaera emanen zaio. Hirigintza jarduera guztiek baimena behar dute eta bizilagunei oroitarazi behar zaie behartuta daudela hori egitera.

Gaztelu zinegotziak dio egungo alkatearen aurreko agintaldietan behin baino gehiagotan ez zela arautegia bete, adibidez PVCko leihoak jarritz, eta berriki bukatu den legegintzaldian ez dela horrelakorik gertatu. Idazkariak hitza hartu du eta hori ez dela horrela izan dio, gertatu direlako, eta berak jakin ditueni buruzko informazioa eman diola Udalari. Fermin Senosiainen aferari buruz galdetu du eta alkateak gaia aztertzen ari direla erantzun dio.

3.- NAFARROAKO ERDIALDEKO UHOLDEEI BURUZKO ERABAKI PROPOSAMENA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta “Uholdeak Riadas 2019” taldeak aurkeztu duen idazkia irakurri du. Hona hemen:

Lehenik.- Nafarroako Erdialdean kalteturiko pertsona eta herri guztiekin, eta bereziki Zeru Cañada gaztearen familiarekin, elkartasuna adieraztea.

Bigarrenik.- Herri hauetako azpiegitura eta zerbitzuen berreraikuntzan laguntzeko xedearekin, 200 euroko diru laguntza onartzen da.

Hirugarrenik.- Udal honek bere herritarrei auzolan ekonomiko honetan parte hartzeko gonbitea luzatzen die, kalteturiko udalek horretarako ireki dituzten kontu korrontetako batean nahi duten diru laguntza egiteko.

Udalek xedaturiko kontu korrontek

Bide honetatik jasotako laguntza ekonomiko oro kalteturiko Udal guztien artean banatuko da jasandako kalteen arabera

“Joan den uztailaren 8an izandako euriteen eta Zidakos ibaiak gainezka egitearen ondorioz Nafarroako erdialdeko hainbat herritan (Tafalla, Herriberry, Puiu, Beire, Pitillas, Orba ibarra, ...) kalte handiak gertatu ziren eta Nafarroako Gobernuak hondamendi eremu izendatu ditu. Etxebizitzen, garajeetan eta saltokietan kalte handiak sortzeaz gain, oinarrizko azpiegiturak ere kaltetuak izan dira, baita karridak, errepideak eta nekazaritzako bideak ere. Kalterik larriena Gardalaingo Zeru Cañada gaztea hiltzea izan da.

Hondamendiari aurre egiteko Auzolan solidarioa antolatu da eta kaltetuak izan diren herrientzako lagungarria izan da. Hala ere, horrelako egoera berezietan, Nafarroa osoak bat egin beharko luke eta, bakoitzak ahal duen neurrian, laguntza eman. Horiek horrela Auzolan ekonomikoa proposatzen dizuegu, herri bakoitzaren ahalmenaren arabera, eskualdea berreraikitzen laguntzeko.

Hortaz, Udal horri honako ERABAKIA hartzea proposatzen diogu:

Lehenik.- Kaltetuak izan diren Nafarroako Erdialdeko pertsona eta herri guztiekiko elkartasuna adieraztea, bereziki Gardalaingo herriarekiko eta gure ibarrean sortutako Zeru Cañadaren familiarekiko.

Bigarren.- Herri horietako azpiegiturak eta zerbitzuak berreskuratzeko, eta bereziki Gardalaingo herrikoak, ___euroko laguntza ematea erabaki da.

Hirugarren.- Udal honek bere herritarrei auzolan ekonomiko honetan parte hartzeko gonbitea luzatzen die, kalteturiko udalek horretarako ireki dituzten kontu korrontetako batean nahi duten diru ekarpena egiteko.

Laugarren.- Udalak erabaki du bizilagunei erabaki honen berri ematea, ohikoak diren bideak erabiliz.

Informazioa irakurri ondoren bertan aipatzen den erabakia hartzea eta 200 euroko laguntza ematea proposatu du. Udalbatza osoa ados egonik, aho batez erabaki da:

Lehenik.- Kaltetuak izan diren Nafarroako Erdialdeko pertsona eta herri guztiekiko elkartasuna adieraztea, bereziki Gardalaingo herriarekiko eta gure ibarrean sortutako Zeru Cañadaren familiarekiko.

Bigarren.- Herri horietako azpiegiturak eta zerbitzuak berreskuratzeko, 200 euroko laguntza ematea erabaki da.

Hirugarren.- Udal honek bere herritarrei auzolan ekonomiko honetan parte hartzeko gonbitea luzatzen die, kalteturiko udalek horretarako ireki dituzten kontu korrontetako batean nahi duten diru ekarpena egiteko.

Laugarren.- Udalak erabaki du bizilagunei erabaki honen berri ematea, ohikoak diren bideak erabiliz.

Udalek xedaturiko kontuak

Bide horretatik jasotako laguntza ekonomiko osoa kaltetuak izan diren Udal guztien artean banatuko da, izandako kalteen proportzioaren arabera.

Tafallako Udala

- La Caixa ES85 2100 3696 6122 1015 1810
- Nafarroako Rural Kutxa ES94 3008 0044 4140 3886 8321
- Laboral Kutxa ES16 3035 0114 19 114004 4394

Erriberriko Udala

- La Caixa ES98 2100 5012 1002 0009 2687
- Nafarroako Rural Kutxa ES43 3008 0035 1140 4075 7421

4.- 2020ko ABELTZAINZA AZPIEGITURETAKO DEIALDIA

Alkateak jakinarazi du abeltzaintzako azpiegituretzako 2020ko deialdia argitaratu dela. Modu berean, jakinarazi du feriarene egunean abeltzainekin egindako bazkarian galdetu ziela zeintzuk diren premia gehien duten lanak eta adostu zutela beharrezkoa dela Antsobiko mauka zolatzea, Antsobi, Otsamieta eta Bidausiko burdin-sare batzuk konpontzea eta Soroluzeako bidea konpontzea, eta azkeneko honen zati bat Garraldako Udalak zura ateratzeko ordaindu behar duenarekin finantzatzeko dela. Informazio horrekin EKILANeko Fermin Izkorekin elkartu da lan horietako zeinek sar daitezkeen deialdian ikusteko.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

- 1.- 2020ko abeltzaintza azpiegituretako deialdian parte hartzea
- 2.- EKILAN enpresari 2020ko abeltzaintzako azpiegituren proiektua prestatzea eskatzea.

5.- DONE JAKUE BIDEA ALDATZEKO ESKAERAREKIN ZERIKUSIA DUEN ERABAKIA.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta azaldu du Udalean sartu ondoren Done Jakue bidea aldatzeko eskaeraren erantzuna jaso zela Ondare Historikoko Zerbitzuaren aldetik, eta horretan esaten zela Departamentu horrek zein beste batzuk asmoa dutela Done Jakue Bidea berrikusteko eta hori egiten denean eskaera kontuan hartuko dela. Eskaera zeri zegokion eta noiz egin zen ez zekienez, erakunde horri dokumentazioa eskatu zitzaion eta hor ikusi zuen aurreko alkateak 2019ko ekainaren 10ean egin zuela.

Eskatutakoari dagokionez, alkateak jakinarazi du aldaketa hori 2014ko bilkura batean proposatu zela eta Nafarroako Gobernuo Biodibertsitatearen Kontserbazioko Zerbitzuak ezezkoa eman zuela 2014ko abenduaren 29an. Bere ustez bidea, orokorrean, ez da alfonbra gorri bat eta Loigorriko malda ez da arriskutsua, izan ere 2015ean seinaleztatu zen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren iradokizunei jarraituz. Gaineratu du inguruan zerbitzuak egoteak ez duela eskatu den aldaketa justifikatzen.

Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta esan du bere ustez eskatu den aldaketa eta Loizu hotelaren ondotik pasatzea, buelta eman eta hortik jaistea ez dagoela gaizki.

Alkateak, Irigaray jk., erantzun du eskatu den aldaketa arriskutsuagoa dela, erromesak karrika nagusitik joango lirakeelako.

Gaia eztabaidatu ondoren erabaki da, aldeko lau botoz eta abstentzio batez (Gaztelu zinegotzia), Kultura Departamentuari jakinaraztea Udala ez dagoela ados eskatutako aldaketarekin eta proposatzen dela egungo bidea mantentzea, eta Nafarroako gobernuko Biodibertsitatearen Kontserbazio Zerbitzuak 2014an emandako txostena eranstea.

6.- UDAL HILERRIA ERABILTZEKO ORDENANTZAREN 35. ARTIKULUAREN ALDAKETA.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du 2015eko abenduaren 21eko bilkuran erabaki zela hilerria erabiltzeko tasei dagokien 35. Artikulua aldatzea erabaki zela, eta tasa diferenteak kobratzea eroldaturik dauden eta daudenei, edo herrikoak direnei, eta abar; artikulu hori berriro aldatzea proposatu du eta denei berdin kobratzea, hots, 100 €, ehorzteko eskubidea izanez gero ezin baita hildakoaren egoeraren arabera diferentziarik egin.

Aldeko 4 botoz eta abstentzio batez (Gaztelu zinegotzia) alkateak egin duen proposamena onartu da eta 35. Artikulua aldatuko da, Toki Administrazioaren 6/90 Foru Legearen arabera izapidetuz eta honela izango da:

HILERRI ZERBITZUA EMATEKO TASAK

35. Artikulua. Tasa horiek Aurizko Udalaren Osoko Bilkurak eguneratu ahalko ditu.

I ERANSKINA

TASAK

Ehorzteko eta hobitik ateratzeko tasak: 100 €.

7.- AURITZ ETA ERROIBARKO UDALERRIEN ARTEKO KATASTROA EGOKITZEKO BATZORDEAREN IZENDAPENA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du arazo hori katastro berria ezarri zenetik sortu dela, 2003-2007 legegintzaldian zinegotzia zen Martin Pedroarenak mahai gainean jarri zuela gaia baina ez zitzaiola irtenbiderik eman eta 2014an berriro heldu zitzaiola eta txostena eskatu zela herri-lurretako zerbitzuan eta txosten horren arabera egungo katastroaren mugetan akatsa zegoela, Erroibarko 9 poligonoko 231 lurzatian eta Aurizko 6 poligonoko 65 lurzatian, eta Udalak duen dokumentazioaren arabera, muga Menditxuriko Arkaitzeko gainetik pasatzen dela eta ez burdin-saretik. Aurizberriko Kontzejua ados dagoenez, aipatutako zuzenketak egin behar dira. Hartara, beharrezkoa da batzordea bat osatzea eta horretan bi toki entitateetako kideak egotea eta zuzenketak egiteko prozedurari hasiera ematea.

Alkateak, Irigaray jk., proposatu du udalbatza osoa parte hartzea batzorde horretan eta Gaztelu zinegotziak dio berak ez duela parte hartuko ez baitu gaia ezagutzen eta uste duelako gainerako zinegotziek herriarentzako hoberena lortzeko lan egingen dutela.

Udalbatza osoa ados egonik, aho batez erabaki da:

1.- Egoera konpontzeko eta Auritz eta Erroibarren arteko katastroaren egokitzapenak egiteko batzordea izendatzea. Batzorde horretan kide hauek parte hartzea: Juandeaburre, Oyarbide, Azanza eta Irigaray

2º.- 2.- Aurizberriko Kontzejuari erabaki honen berri ematea.

8.- LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN KONTSEILARITZARI LURZATIEN BERRANTOLAMENDUAK SORTUTAKO HERRI-LURRAK ITZULTZEKO ESKAERA

Alkateak,, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du lurzati batakuntza egiten denean Gobernuak lur batzuk gordetzen dituela erreklamazioak egotekotan edo aurreikusitako zer edo zer gertatzen diren lurak adjudikatu ahal izateko eta erreklamazioei irtenbidea emateko. Lurzati batakuntza gauzatzen denetik 3 urte pasatu ondoren, lur horiek Udalak eskatu ditzake herri-lurra izateko.

Horiek horrela eta Nekazaritza Azpiegituretako martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen 59 Artikulua irakurri da:

Finka sobranteak

1. Zilegi izanen da lur sobranteak, birbanatze akta protokolizatu eta hiru urteko epean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak bidezko irizten dien helburuetarako erabiltzea.

2. Epe hori iragan delarik, herrilurtzat adjudikatuko zaizkio kasuko toki entitateari, interes orokorreko diren obrak zaintzeko konpromisoa hartuta, hala nola bideak, saneamendu sareak eta ingurumenari buruzko neurriak, lurzati berrantolamendua dela eta eginak.

Eta proposatu du, epea iraganik, Nekazaritzako Azpiegituretako Zerbitzuari eskatzea lurzati berrantolamendua prozesuan sortutako lur-multzo komunak herrilur bihurtzeko izapideak hastea, gutxi gora behera 72.000 m² egiten baitute.

Eta proposatu du, epea iraganik, Nekazaritzako Azpiegituretako Zerbitzuari eskatzea lurzati berrantolamendua prozesuan sortutako lur-multzo komunak herrilur bihurtzeko izapideak hastea, gutxi gora behera 72.000 m² egiten baitute.

- 1 Poligonoa 191 lurzati, lurzati berrantolamenduaren arabera, indarrean dagoen katastroaren arabera 6 poligonoko 276 eta 277 lurzatiak. Antsobin.

- 3 Poligonoa 77 lurzattia, lurzatién berrantolamenduaren arabera, indarrean dagoen katastroaren arabera 6 poligonoko 305 lurzattia. Antsoáin.
- 3 Poligonoa 116 lurzattia, lurzatién berrantolamenduaren arabera, indarrean dagoen katastroaren arabera 3 poligonoko 114 lurzattia. Antsoáin.
- 3 Poligonoa 124 lurzattia, lurzatién berrantolamenduaren arabera, indarrean dagoen katastroaren arabera 3 poligonoko 104 lurzattia. Zokoetan.
- 4 Poligonoa 19 lurzattia, lurzatién berrantolamenduaren arabera, indarrean dagoen katastroaren arabera 6 poligonoko 288 lurzattia. Margaritasaron. Zerbitzuan frogatzea falta bada ere, egungorekin bat egiten ez baitu.
- 8 Poligonoa 53 lurzattia, lurzatién berrantolamenduaren arabera, indarrean dagoen katastroaren arabera 5 poligonoko 290 lurzattia. Zalduan (abelbidearen eta Aurizberriko Otegiren artean).
- 9 Poligonoa 173 lurzattia, lurzatién berrantolamenduaren arabera, indarrean dagoen katastroaren arabera 1 poligonoko 46 lurzattia. Zakarroáan.

AURREKONTUKO ALDAKETAK

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du beharrezkoa dela honako aurrekontuko aldaketa onartzea, abeltzaintzako azpiegituren kontu-sailei dagozkienak, proiektuaren arabera egin behar diren lanak egiteko diru nahikorik ez baitago. Hortaz, honako aldaketa onartu behar da Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza eta gastu orokorretarako dagoen soberakina kontuan hartuta.

Gaztelu zinegotziak dio ez duela gaia ezagutzen, eta, hortaz, ez duela bozkatuko. Idazkariak hitza hartu du eta oroitarazi dio aurreko legegintzaldian, Gaztelu zinegotzia hartan baitzegoen, abeltzaintzako azpiegiturretako proiektua onartu zela, alde zurretik Ekilanez egina, eta orain proiektu hori gauzatu dela. Aurreko udalbatzak onetsi zuen aurrekontuan gastu hori biltzen zuen diru-partidan ez zegoela gastuari aurre egiteko diru nahikorik eta bazekiela partida horren aldaketa egin behar zela. Afera horiek guztiak aurreko legegintzaldian hitz egin eta landu ziren.

Udalbatzak erabaki du aldeko lau botoz eta abstentzio batez (Gaztelu zinegotzia), honako aurrekontuko aldaketa onartzea:

AURREKONTU OROKOR BAKARRAREN KREDITU GEHIGARRIAK GAITZEKO TXOSTENA 2019. URTEALDIRAKO. HONA HEMEN LABURPENA:

AURREKONTUKO ALDAKETAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
1 4121 6810000	ABELTZAINZA AZPIEGITURAK	40.659,91

ALDAKETAK OSOTARA		40.659,91
--------------------------	--	------------------

FINANTZAZIO ITURRIAK

KONTUSAILA	IZENA	ZENBATEKOA
2 870	DIRUZAINZAKO SOBERAKINA	
1 7508004	GASTU OROKORRETARAKO ETA UKITUTAKO BALIABIDEAK DAUDELAKO ABELTZAINZA AZPIEGITUREN DIRU-LAGUNTZA	17.571,18
		23.088,73
FINANTZAZIO ITURRIAK		40.659,91

Hori guztia Nafarroako Toki Ogasunen 2/1995 Foru Legearen 212 eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera egin da.

Nafarroako Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluekin bat, txostenak jendaurrean egonen dira 15 egun balioduneko epean udaletxeko idazkaritzan, nahi duen orok aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzan.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean txostena behin betiko onetsizat emango da baita haren laburpena iragartzeko izapidea betetzat ere.

10.- FINANTZARIOKI JASANGARRIAK DIREN LANEI BURUZKO ERABAKIA (IPETEAKO BIDEA)

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak diruz lagundutako finantzarioki jasangarriak diren lanen barnean sartutako Ipeteako bideko egokitzapen lanei dagokienez, bera eta Juandeaburre zinegotzia proiektua idatzi zuen ingeniariarekin, Juan Guallart, elkartu ziren lanen kostua ikusita gastuak jaitsi ahal ziren ikusteko, adibidez, argiteriari dagokion gastua jaitsez, bestela ezinezkoa baitzen aurrera egitea Modu berean, jakinarazi du Industria Departamentuko diru-laguntza jasotzeko aukera bazegoela, industrialdeentzako, Tokiko Administrazio Departamentukoaren diru-laguntzarekin bateragarria, baina berriki argitaratu denez eta eman dituen epeak ikusita, lanak diru-laguntza lortu den jakin gabe egin behar dira. Ingeniariarekin hitz egin ondoren, diru-laguntza jasotzea zaila da, puntu gehien argiteria publikoarengatik jaso daitekeelako, eta horretan hain zuzen ere aurreztu nahi da, gastu hori beharrezkoa ez dela uste baita. Juandeaburre zinegotziak hitza hartu du eta esan du, horri guztiari gehitu behar zaiola herrian behar handiagoak daudela eta lan horien kostua ikusita, zalantzakoa dela beharrezkoa zen egitea. Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta esan du badakiela behar anitz daudela, baina obra hori horietako bat dela eta bazekiela gobernu taldearen iritzia hori izango zela baina bera ez dagoela horrekin ados.

Idazkariak hitza hartu du eta jakinarazi du aurreko udalbatzak lanak egitea onetsi zuela beti ere finantzazio nahiko egonez gero, eta hori horrela izango zela industrialdeentzako diru-laguntza deialdiaren bidez dirua lortuz gero, bi diru-laguntzak bateragarriak baitira. Kasu honetan arazoa da industrialdeentzako diru-laguntza deialdia berandu atera dela eta ematen dituen epeen arabera ezin dela jakin laguntza lortuko den lanak hasi baino

lehen. Beraz, Udalak arriskatu beharko luke eta lanak hasi diru-laguntza lortuko den jakin gabe, eta lortuko ez balu ez luke ahalmenik izango gastuei aurre egiteko.

Gaiaz eztabaidatu eta aztertu ondoren, erabaki da aldeko lau botoz eta aurkako batez (Gaztelu zinegotzia) "Ipeteako Bidea Egokitzeko" lanekin aurrera ez egitea, eta Tokiko Administrazioako Departamentuari erabaki honen berri ematea, jakin dezan eta behar diren ondorioak izan ditzan.

11.- ESKOLAKO JANTOKIA - ERABAKIA

Juandeaburre zinegotziak hitza hartu du eta jakinarazi du Aurizko Eskolako Guraso Elkartek diru-laguntza eskatu duela eskolako jantokirako, eta orain arte Udalak 530 euro ematen zituela. Aurten hilabetero 500 euro ordaintzea proposatu du, ikasturtea irauten duen zortzi hilabeteetan, eta gurasoek diferentzia ordaintzea eta Guraso Elkartearekin berriro elkartzea 2020ko urtarrilean.

Aho batez erabaki da aurten hilabetero 500 euro ematea eskola jantokirako. Gurasoek diferentzia ordainduko dute eta urtarrilean Udalak Guraso Elkartearekin berriro elkartuko da.

12.- DENETARIK

Udalaren kontuen egoera

Hasteko, Juandeaburre zinegotziak hitza hartu du eta Udaleko diru-kutxen egoerari buruzko informazioa eman du:

Mezenasgoaren kontuen saldoak:

Kontu korronteak: 27.638,71 euro

Inbertsio fondoak 57.002,52

Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta esan du aurreko alkateak esan ziola inbertsio fondoak mantentzeak ez zuela zentzu handirik eta kitatu behar zela eta kontu korrontean sartu. Juandeaburre zinegotziak erantzun dio ikusiko dela nola doan, baina ez duela zentzu handirik mantentzeak.

Modu berean ordaindu diren gastu garrantzitsuak jakinarazi ditu, besteak beste, balorazio ponentzia, Comercial Itolegi, Baso Jarduerak, eta abar, baita lortu diren diru-sarrerak, besteak beste Explotaciones Eciolaza, Tokiko Ogasunen Fondoaren 2. Hiru-hilekoa, udalkideen-dirulaguntzak, bazkalekuak.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

Oihan loteen adjudikazioa

Oihan aprobetxamenduari dagokionez jakinarazi da 1. Lotea, Basajaunberrokoa, Arpana Formacion Forestal enpresari adjudikatu zaiola zortzi mila eta lauhun eurotan (8.400,00 €) gehi BEZa, eta 2. Lotea, Bidausikoa, Explotaciones Forestales Eciolaza enpresari, sei mila zortzirehun eta bost eurotan (6.805,00 €) gehi BEZa.

Udalbatza jakitun da.

Abeltzaintza azpiegiturak

Jakinarazi da zailtasunak egon direla lanak adjudikatzeko, baina azkenean egin direla eta emandako epean ordaindu direla. Eta Nafarroako Gobernuari jakinarazi zaiola ezartzen dituzten epeak betetzea oso zaila izaten dela. Izan ere, badirudi hurrengo deialdirako epean afera kontuan hartuko dela.

Udalbatza jakitun da.

Errepidea eta G7a

G7ak Miarrizzen egingo duen bilerari dagokionez hasiera batean trafikoa N-135etik bideratzea aurreikusita zegoenez, Nafarroako Gobernuako Delegazioari eta Barne Kontseilaritzari idazkia igorri zuela esan du, jakiteko zer nolako neurriak hartu behar ziren eta informazioa eman zezaten. Azkenean erabaki zen data horietan ez zitzaizela kamioiei errepide honetatik pasatzen utziko.

Landarte

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du artea landa eremura eramanez duen Landarte programaren bitartez, aurten memoriaren gaia landu dela eta herrian bunkerren ibilbidearekin lotu dela, eta, horregatik artistek proposatu zutela bi lan egitea, horietako bat iraunkorra, jostuntzarekin lotua, ejerzituaren mapen gainean ibilbideak lotuz, lan horiek etorkizunean udaletxean jarriko dira, eta bestea iragankorra, Aetzubin egin zen, eta errekarriak erabilita gizaki-oinatz bat egitea.

Udalbatza jakitun da eta alkatearen ekimenarekin ados dagoela dio.

Abuztua eta iraileko feriak.

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du feriak oso ongi atera direla eta irailekoan “Aurizko pinakoteka bat/Una pinacoteca de Burguete” liburua aurkeztu zela eta harrera oso ona izan duela.

Udalbatza jakitun da.

Tokiko jaia

Hurrengo osoko bilkuran eta langileekin hitz egin ondoren tokiko festaren eguna adostuko da.

Udalbatza jakitun da.

CEDERNA: Eskualdeko ordezkariaren izendapena

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Cedernak bilera egin zuela egiturako karguak izendatzeko eta gure eskualdeari dagokion ordezkaria Esteribarko Udaleko alkatea hautatua izan zela.

Udalbatza jakitun da.

NUKF: Ordezkariaren izendapena

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du bozketa egin ondoren NUKFko presidente Azkoiengo alkatea, Juan Carlos Castillo, izendatu zutela, eta gure eskualdeko ordezkaria Aurizberriko kontzejuburua, Mikel Landabere.

Udalbatza jakitun da.

Justiziako makila

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du urriaren 3ko data erreferentzia gisa hartuta, justiziako makilaren desagertzearen historia, Berlangaren film bat egitea merezi baitu, bukatutzat eman duela. Egun horretan eta udaletxeko etxebizitzaren zaharberritze lanak zuzentzen ari den arkitektoak hala eskatuta, artxiboaren eta komunaren artean dagoen biltegi-gela hustutzean, agoazilak makil famatua aurkitu zuen apalategi batzuen azpian eta idazkariak bilkura aretoan jarri du, haren ordezkariaren ondoan.

Udalbatza jakitun da.

13.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Gaztelu zinegotziak hitza hartu du eta esan du Landarteko itxiera egunean, Aetzubin izandako ekitaldian, bera eta aurreko udalbatzako kide gehiago bertan zirela eta proiektua beraiek bultzatu zutenez, ez zen horren gainean deus ere esan eta oso gaizki iruditu zitzaiola aurreko alkatea ez aipatzea. Beste aldetik, azienda feriaren egunean, prentsan Ornitolanek egindako jarduera aipatzen zen, jarduera Garaitzeko-Asik sustatu eta finantzatu baldin bazuen ere, eta Aranzadi ere aipatzen zen, baina ez Garaitzeko-Asi. Bere haserrea aipatzeaz gain alkateari oroitarazi dio karguaz jabetu zenean esandakoa, *hauteskundeak eta haien prozesua pilota partida batekin parekatuz, pilotariak bere artean borrokatzen baitute azkeneko tantua arte eta jokua bukatzen denean eskua ematen diotela elkarri*. Bere iritziz sentiberatasun gehiago izan beharko litzateke gai horiekin.

Gaztelu zinegotziak grabagailua itzali behar duela dio.

Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Landarteko egunari dagokionez, bi ekitaldi egin zirela, lehenengoa kultur etxean, eta hartara ez zirela aurreko legegintzaldiko udalkideak bertaratu, eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak, Carmen Orozek aurreko udalbatzaren eta oraingoaren inplikazioa aipatu eta eskertu zuela eta aurreko alkatea, de Potestad, eta bera ere bereziki aipatu zituela. Bigarren ekitaldian, Aetzubin, berak hitza hartu zuenean iruditu zitzaion ez zela beharrezkoa berriko aipatzea, eta gainera argazkia egin zutela bera, Carmen Oroz eta Luis de Potestad.

Iraileko feriarri dagokionez, Ornitolan enpresako Gabi Berastegirekin hitza egin zuen eta esan zion Garaitzeko-Asi jendea Lindusera eramateko garraioaz arduratzen dela eta zailtasunak izaten ari zela Arantza de Ynchaustirekin eta Gaztelu zinegotziarekin harremanetan jartzeko, baina ez ziola inoiz ere esan jarduera ez zuela Udalak antolatzen. Gaineratu du berak uste zuela Udalak antolatzen zuela, 2009tik egiten zen moduan. Beste aldetik aipatu du Elkarteko kartela ikusi zuenean ohartu zela Udala ez zela agertzen, ezta kolaboratzaile gisa ere, ekintza garatzen den lurretako jabea izanda ere.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez, 20:30ean bilkurari bukaera eman zaio eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.